

SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK / TURISMOA-TURISMO

“Sagardoak gustu hobea du zeuk aukeratzen duzunean”.

LEIRE - 29/02/2012 · 10:24

Sin comentarios



Euskadi Turismok, www.turismo.euskadi.net orrialdearen bitartez turisten Euskal Herriko egonaldiaz gozatzeko **esperientzia** ezberdinak proposatzen ditu. **Euskadiko TOP esperientziatiko** bat “**Sagardoak gustu hobea du zeuk aukeratzen duzunean**” deiturikoa da eta bertan, **sagardoaren kulturaz gozatzeko** aukera eskaintzen duten **3 esperientzia** proposatzen dira: “**txotx garaia**”, “**sagardoaren kultura**” eta “**sagardoa denboran zehar**”.

1) **Txotx garaia**: Sagardotegi bat aukeratzea besterik ez duzu. Gainerakoa erraz-erraza da. Menua oso antzekoa da toki guztietan: bakailao-tortilla; bakailaoa,

frijituta, saltsan edo piperrekin; txuleta, txingarretan erreta, eta, gainean, gazta, irasagarrarekin eta intxaurrekin; nola ez, gutzia sagardo goxo eta freskagarri batekin bustita, adiskidetasunezko, familia erako eta jostetazko giro batean.

Bada kanpotarrak biziki erakartzen dituen ohitura bat: nahiz eta adiskideekin afaldu, azkenean han diren gainerako afalzarrekin berriketan eta pasadizoak partekatzen bukatzen da gaua; izan ere, sagardotegi askotan zutik jaten da oraindik.

2) **Sagardoaren kultura**: Sagardoa egiteko prozesua ezagutuko duzu, eta erabiltzen diren sagar motak bereizten ikasiko duzu. Sagardoaren kulturaren bete-betean sartuta zaudenean, menu tipikoa dastatzea gomendatzen dizugu urte osoan irekita dagoen sagardotegietako (jartetxea dute) batean. Astigarragako Sagardoetxea eta Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria bisitatzea gomendatzen dizugu.

3) **Sagardoa denboran zehar**: Hernani oinez deskubritzen hasiko gara: etxe zuriak eta armariak, giroa, txikiteoa eta txarangak; gida batekin batera, haren kaleetatik ibiliko gara. Ondoren, tren hartuko dugu sagardotegi batera joateko; bidaian, XV. mendeko haran sistema, hirien elikagai sistema eta mendeetan zeharreko sagardoaren historiaren berri emango digute. Sagardotegira iritsitakoan, jabeek atea irekiko dizkigute eta euskal sagardoa nola egiten den erakutsi, dastatzea nola egiten den irakatsi eta gure sagardoa besteetatik bereizten duena, alegia, txotxa, zertan datzan azaldu egingo digute.

Ikusi bideoa: “Euskadiko esperientziak”

Iturria: <http://turismo.euskadi.net>

Tags: cultura de la sidra, el ritual del txotx, Euskadi Turismo, experiencias, Sagardoaren kultura, sagardoaren munduko esperientziak, turismoa, txotx-eko erritua

Anterior post

Sidra natural Garantía de calidad con Eusko Label.Sagardo naturala, kalitatearen bermea Eusko Label-arekin.

Siguiente post

ESCAPADA SIDRERA al mundo de la manzana.Sagarraren mundurako SAGARDO MUNDUKO EGONALDIA.

Tu comentario / Zure komentarioa

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Categorías

Azokak-Ferías
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Espertentziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzana
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Sin categoría
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Maiatzak 11, probaketa
Bereziartua sagardotegian.



Musika giroa alaitzeko
udaberriko giro
paregabean.



6.000 bisitari inguru izan
ditugu Aste Santuan
Sagardoaren Lurraldean.



Euskal Sagardoaren
Museoa eta Santiagomendi
ingurua, “Euskadiko
Biodibertsitatea”
ekimenaren hurrengo
naturguneak.



IV. Sagar Martxa ospatuko
da igandean Hemanin.